HIZKUNTZAREN GARRANTZIA OSASUNEAN

Pazienteekiko adeitasuna, enpatia eta komunikazio hurbil eta segurua dira osasun-zerbitzuen kalitatea bermatzeko zimentarriak.

Horrela, Osakidetzak euskarazko arreta ziurtatu behar die hizkuntza horretan erosoago eta seguruago sentitzen diren pertsona guztiei. Eta horretarako, euskararen ezagutza egiaztatzea eskatzen zaie hainbat kategoria eta zerbitzutako profesionalei.

OSAKIDETZAN, ZEIN PROFESIONALEK EGIAZTATU BEHAR DUTE EUSKARAREN EZAGUTZA?

Gaur egun, Osakidetzako lanpostuen %36 inguruan eskatzen da euskara titulua (9.500 bat lanpostutan):

- Biztanle euskaldun gehiago duten herrietako osasun-zentro eta ospitaleetan (Gipuzkoakoetan edo Bizkaiko ekialdekoetan batez ere), euskara titulua lanpostu gehiagotan eskatzen da Bizkaiko Ezkerraldean edo Araban baino.
- Paziente kopururik handienak dituzten unitateetan (medikuntza eta erizaintza orokorrean, pediatrian, emagintzan, odontologian, larrialdietan, ospitalizazio erizaintzan edo errehabilitazioan), euskara titulua lanpostu gehiagotan eskatzen da espezializazio mediko, farmazia edo laborategietan baino.

  Era horretara, pediatrek, familia-medikuek, Larrialdietako medikuek, odontologoek, erizainek, emaginek, fisioterapeutek, erizaintzako laguntzaileek, Erradiologiako teknikariek, Emergentzietako teknikariek edo zeladoreek lehentasun handiagoa dute bestelako mediku espezialistek, farmazialariek edo laborategietako profesionalek baino.

ZEIN EUSKARA TITULU ESKATZEN DA OSAKIDETZAN?

Arlo sanitarioko lanpostuek administrazio publikoetako 2. hizkuntza-eskakizuna daukate (Europako erreferentzia markoaren B2 maila). Hortaz, euskararen ezagutza derrigorrezkoa duten lanpostuetan gutxienez B2 maila egiaztatu behar da.

EUSKARA TITULUEK ZENBAT PUNTU EMATEN DITUZTE OSAKIDETZAKO HAUTAPEN PROZESUETAN?

Bai Osakidetzako oposizioetan, bai lanbide-kategoria bakoitzaren kontratazio-zerrenden osaeran, puntuazio portzentaje desberdina lortzen da euskara tituluaren arabera:

1.HE (B1) ..... Hautaketa-prozesuko puntuazio osoaren %5

2.HE (B2) ..... Hautaketa-prozesuko puntuazio osoaren %10

3.HE (C1, EGA) ..... Hautaketa-prozesuko puntuazio osoaren %15

NOLA LOR DAITEZKE EUSKARA TITULUAK?

a) Ikasketa akademikoak euskaraz egiten dituzten ikasleek ez dute euskara titulurik atera behar. Osakidetzak 1., 2. edo 3. HE baliokidetzen du euskaraz burututako ikasketa-maila kontuan hartuz:

- DBH ETA LANBIDE HEZIKETAKO ERDI-MAILAKO ZIKLOAK ..... **1.HE (B1)**
  Curriculumaren %50 baino gehiago ikasi behar da euskaraz.
- BATXILERGOA ETA LANBIDE HEZIKETAKO GOI-MAILAKO ZIKLOAK ..... **2.HE (B2)**
  Curriculumaren %50 baino gehiago ikasi behar da euskaraz.
- UNIBERTSITATE-GRADUAK ..... **3.HE (C1, EGA)**
  Gutxienez 144 ECTS kreditu egin behar dira euskaraz (horietariko batzuk lor daitezke gradu amaierako lana euskaraz aurkeztuta edo hizkuntza-prestakuntzako kreditu espezifikoak burututa).

b) Ikasketa akademikoak euskaraz egiten ez dituzten ikasleek euskaltegietan edo hizkuntza-eskola ofizialetan presta eta eskura ditzakete B1, B2 eta C1 euskara tituluak.

Argibide gehiago:
www.osakidetza.eus (Langileak/Euskara)

2015eko abendua

Euskarak

Osakidetzaren **ateak** irekitzen lagunduko dizu

Aprobetxatu aukera

Osakidetza

PERTSONA HELBURU EUSKO JAURLARITZA OSASUN SAILA
COMPROMISO CON LAS PERSONAS GOBIERNO VASCO DEPARTAMENTO DE SALUD